

« AFRIKAKO EMAKUMEEN PARLAMENTUA »

BERDINTASUNA, EKITATEA, EMAKUMEEN ESKUBIDEAK



© Ly Lagazelle

ARGAZKI TALDE ERAKUSKETA
URRIAREN 14tik
AZAROAREN 4ra
Zabalgune Eraikina (Bilbo)



« AFRIKAKO EMAKUMEEN PARLAMENTUA »

BERDINTASUNA, EKITATEA, EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

“Le Parlement des Femmes d’Afrique” (Afrikako Emakumeen Parlamentua)



Argazkigintzaren munduan diskriminazioaren mekanismoei buruz irakastea da gure zeregina. “Le Parlement des Femmes d’Afrique” (Afrikako Emakumeen Parlamentua) izeneko proiektuak emakumeen eskubideei buruzko galderak planteatzen

laguntzen du. Afrikako hainbat herrialde-tako emakumezko eta gizonetzko argazkilari gazte batzuek generoen arteko aldeak zalantzan jartzen dituzte beren obren, beren pasioaren, bitartez. Emakumeen eskubideekiko eta argazkilaritzarekiko duten konpromisoa azaldu dute, beren “arrebei eta ahizpei”, beren “amei”, egokitu zaienaz kezkatuta. Horrela, kontinenteko emakume argazkilarien estatusari buruzko begirada berri bat konfiguratzeko hasi da.

Ekimen hau Senegalen jaio zen 2018ko iraillean, Afrikako Arte Fotografikoko Federazioko (FAAP) kideei artistikoki bikainak diren argazkilarik egiten laguntzeko. Ekimenak emakume argazkilariak nabarmentzen ditu eta bitarteko bikaina da “parlementaires” deituriko gazte talde horretan esperientziak trukatzeko.

David Palacinen (Espainia), Marta Moreirasen (Espainia) eta nire (Senegal) aholkularitza teknikoarekin –argazkigintzako hiru profesional gara–, hamahiru argazkilarik gaztekin parte hartu zuten, 2019ko ekainaren 17tik 28ra, Dakarreko Cervantes Aretoan egindako prestakuntza-saioan. Beste lau argazkilarik ere proiektuarekin bat egin dute 2020an.

Erakusketa honetan, proiektuan parte hartu duten hamabost argazkilariren lanak erakutsiko dizkizuegu.

Obra horiek guztiak emakumeen eskubideak defendatzea dute helburu. Hala, Samuelle Paul Bangaren lanak emakumeek etxean jasaten duten diskriminazioa islatzen du. Era berean, Nan’art (Nana Marie Hélène Faye) argazkilariak emakumearen indarra eta gaitasunak azpimarratzen ditu, batik bat giro profesionalean. Bestalde, Koukambakana Matthieu Uriellek diskurtso jakin batzuk desmuntatzeko baliatzen ditu bere bizipenak, eta Ismaila Dioufek, bere aldetik, gizonak

etxean duen estatusa azpimarratzen du. Ly Lagazellek (Phillis Lissa) itxaropenez betetako mezu bat igortzen du, eta emakume afrikarrek ustez gizonetzkoenak diren zereginetan dituzten aukeren ikuspegia zabaltzen du. Mystic Bram’s (Ibrahima Dia) emakumeek erlijioen munduan dituzten eskubideei buruzko mezuak azpimarratzen saiatzen da. Carlos Sodokpak emakumeek sektore informalean egindako ekarpena azpimarratzen du, Cottonútik Dakarrera. Oumou Traorék Senegalen dauden emakume maliar migratzaileen mezuak ekartzen dizkigu. Fatoumata Diallok Saheletik joandako emakumeen sufrimendua salatzen du, batik bat gatazka armatuen biktimena. Catherine Almeidak pubertaroarekiko interesa agertu du. Oumou Kalsoum Baldé bortxaketaren drama berreraikitzen saiatzen da. Ousmane Goita emakumeek Afrikako gizartearen duten aberastasunari balioa ematen saiatzen da, estetika femeninoaren bitartez. Zentzu berean, Pyspicek (Papa Youssoupha Seck) emakumeek Ginean duten egitekoa interpretatzen eta azpimarratzen du; Emmanuel Alexis Aikok Beningo emakume borrokalariaren bizipenak erreproduzitzen ditu; bestalde, Dago Nadi Jessicak pentsatzen du Boli Kostako emakumeen aurkako bidegabekeriarik handiena oraindik ere lurraarekiko eskubiderik eza dela (landa-eremuetan).

Proiektu egokiak dira, generoarekin lotutako gaien berri ematen dutelako munduan zehar. Afrikan, Europan, Amerikan, mundu osoan, emakumeen eskubideek mota guztietako bortxaketak jasaten dituzte.

Beharbada goizegi da esateko argazkigintzaren etorkizuna emakumeen eskuetan dagoela? “Le Parlement des Femmes d’Afrique” (Afrikako Emakumeen Parlamentua) proiektuak argazkilarien konpromisoa indarberritzen du emakumeen eskubideak konkistatzeko borrokan.

Argazkigintzak forma kultural guztiak ukitzen ditu. Emakumeen eskubideekin lotutako gaien inguruan sentibilizatzeko eta horiek salatzen garaia da, emakume afrikarrek gure gizartearen, gure gizarteetan, duten zeregina baloratuz.

Emakume afrikarrek argazkigintzan duten gabezia, ikusezintasuna eta presentzia urria lan hauetan agerian geratu den problematika bat da; izan ere, obra horietan zalantzan jartzen da emakumeek sektore bisualean duten presentziarekiko gure konformismoa.

Mamadou Gomis

Afrikako Arte Fotografikoko Federazioko (FAAP) presidente eta sortzailea. Proiektuaren abiarazlea eta erakusketaren komisarioa.



« Parlamentarioak »

- P 08** || **Oumou Kalsoum Baldé** // « L'oeuvre de la honte »
(Lotsaren obra)
- P 10** || **Samuelle Paul Banga** // « Na loti » (Ametz bat izan dut)
- P 12** || **Catherine Almeida** // « Ya fara » (Pubertaroa)
- P 14** || **Ousmane Goïta** // « Musoya » (Feminitatea)
- P 16** || **Lemrite (Ismaila Diouf)** // « Et si on inversait les rôles ? »
(Eta rolak irauliko bagenitu?)
- P 18** || **NAN'ART (Nana Marie Hélène Faye)** // « La petite chaussure rouge »
(Zapatatxo gorria)
- P 20** || **Dago Nadi Jessica** // « Socle Bafoué » (Oinarri zanpatua)
- P 22** || **Mystic Bram's (Ibrahima Dia)** // « Ñun itam » (Emakumeok ere bai!)
- P 24** || **Pypsic** // « L'oeuvre aux noirs » (Beltzen lana)
- P 26** || **Adébayo Sègla Carlos G. C. Sodokpa** // « 100 rythmes » (100 erritmo)
- P 28** || **Ly Lagazelle (Phillis Lissa)** // « Identité » (Nortasuna)
- P 30** || **Koukambakana Matthieu Urielle** // « Sexisme » (Sexismoa)
- P 32** || **Oumou Traoré** // « Femmes migrantes » (Emakume migratzaileak)
- P 34** || **Fatoumata Diallo** // « Errantes » (Alderraiak)
- P 36** || **Emmanuel Alexis AïKO** // « Amazones » (Amazonak)



Oumou Kalsoum Baldé



Samuelle Paul Banga



Catherine Almeida



NAN'ART



Dago Nadi Jessica



Mystic Bram's



Ly Lagazelle



Koukambakana M. Urielle



Oumou Traoré



Ousmane Goita



Ismaïla Diouf

FANP
Fédération Africaine
sur l'Art Photographique



Pyspic




Carlos Sodokpa



Fatoumata Diallo



Emmanuel Alexis AïKO



Oumou Kalsoum Baldé

« L'oeuvre de la honte » (Lotsaren obra)

Emakumeen aurkako indarkeria are-agotu egin dela ikusirik, batez ere emakume gazteen aurkakoa, mundu osora hedatu den izurrite horretaz arduratzen da bereziki gure argazkilaria. Bere auzoko neska baten kasuaz mintzo zaigu, antolatutako bortxaketa baten biktima izan zen neska bati buruz.

Kontakizun-serie bat dugu "Lotsaren obra", 12 urteko neska baten zoriontasuna urratu eta duintasuna zanpatu zuen ekintza anker eta traumatiko haren unerik gogorrenak berregiten dituen. Genero-berdintasuna denon ahotan dabilen testuinguru honetan, etengabe urratzen da giza duintasuna


—emakumeena, batez ere— gure gizartean, gure gizarteetan.

Zigorrik gabe geratzen al dira krimen horietatik gehienak itxurakeria, familiaren ustezko kohesioa eta beste arrazoi aizun batzuk direla medio?

Zenbat bortxaketaren berri eman behar ote dugu oraindik, edo zenbat gorde isilpean, "nesken erruagatik" izan zirela aitzakia jarrita?

Bortxatutako emakumeek jasandako indarkeria gaitzestea du xede argazkilariak, bere lan artistikoaren ikuspegiarekin eta argazkilaritzarekiko grinaz baliatuz.





BIOGRAFIA

Oumou Kalsoum Baldé —hori du egiazko izena— Thiaroyen jaio eta hazi zen, Dakarreko aldirietan. Gazterik utzi zuen eskola, eta oinarrizko ikasketak bakarrik egin zituen.

Denda txiki bat ireki zuen 2005ean, bizimodua aurrera ateratzeko, eta beste zenbait lanbide ere izan ditu; besteak beste, arrantzarako tresnak eta arraina saltzen jarduna da. Jatetxe txiki bat ere zabaldu zuen, Pikineko arrain-azoka nagusian.

Aitarengandik datorkio argazkizaleatasuna, argazkilaria baitzen ogibidez. 2011n egin zuen lehenbiziko argazki “profesionala”, eta hari esker lortu zuen lehenbiziko argazkilaria-lana eta erosi zuen lehenbiziko kamera profesionala. Aldirietako irrati batean egin zuen lan 2013tik 2018ra, kazetari eta argazkilaria gisa.

2017an, Mali eta Burkina Faso arteko immigrazio klandestinoari buruzko erreportaje bat egin zuen. Arrasto sakona utzi zion lan hark, arazo ugari izan baitzitu: atxilotu egin zuten, kendu egin zizkioten agiriak eta lana oztopatzen saiatu... Senegalgo minifutboleko taldearentzat ere egiten du lan 2017az geroztik.

Autodidakta da Oumou, eta esperientzia handia metatu du, erreportaje ugari egin baititu, bai Senegalen bai nazioartean, batez ere Nigerreko Agadezen, 2016ko nazioarteko moda-jaialdian.



Samuelle Paul Banga

« Na loti » (Amets bat izan dut)

Heziketa sexu-bereizketarik gabekoa den gizarte batekin egiten du amets gure emakumeak.

Saski bat ikusten du ametsean,

berekin daraman xarma guztia isuriz doana.

Bi lagunek daramate saskia.

Bere ametsean,

emakume bat ikusten du.

Emakume oso nekatu bat,

gizonekiko berdintasuna lortzearren gogor lan egiten duena.

Ulertzen du emakume hori, sexu-bereizketarik gabeko heziketa hedatzen hasi dena.

Emakumea zenbait pentsaera aldatzen saiatzen ari da.



BIOGRAFIA

Samuelle PAUL BANGA du egiazko izena, eta Kongoko nazionalitatea du. Argazkilari autodidakta da, eta Dakarren bizi da. Bigarren hezkuntzako ikasketak amaitu zituenetik, argazkilaritza du etengabeko grina. Batez ere erretratuak egiten ditu, naturarenak zein ekitaldi artistikoenak, eta bi urtetik gorako esperientzia du argazkigintzan.

Argazkilaria ez ezik, abokatu juniorra ere bada WÁTU Digital Lab komunikazio- eta ekitaldi-agentzian, eta FAAP - Afrikako Arte Fotografikoko Federazioko kidea.

https://www.instagram.com/samuella_paul/

<https://www.linkedin.com/in/samuella-paul-banga-2589ba153/>

Catherine Almeida

« Ya fara » (Pubertaroa)



Erretratu-serie baten laburpena da “Ya Fara”. Argazkilariaren amaren izena da, hura omendu nahi izan baitu bere obren bidez. Pubertaroa jorratu du artistak, neska askorentzat hain zaila eta aztoratzailea izan ohi den aroa.

Hamahiru urteko neska baten bizitza erakusten digu argazkilariak lan honen bitartez. Galdera hau luzatzen digu

argazkilariak kontakizun-serie horren bidez, zeina amatasunari buruzko kontzientzia-hartze moduko bat baita: “Zein da gure eginkizuna? Zer egin behar dugu gure alaben alde? Zain egon behar al dugu, ezer egin gabe? Ala erreakzionatu egin behar dugu, eta zaindu, bide txarretik jo ez dezaten?”.



BIOGRAFIA

Senegalgoa da Catherine ALMEIDA, herrialdearen erdialdean dagoen Thiés eskualdean jaioa. Argazkilaria da, eta, dibortziatu zenetik, bere baliabideez aparte ez du besterik seme-alabak hazteko.

Ikus-entzunezkoen ekoizpenean, estaldura mediatikoetan eta *media training*ean jarduten den komunikazio-enpresa batean (www.afridi-media.com) egiten du lan. Zenbait garapen-proiektutarako baliabideak lortzea du xede nagusi berak zuzentzen duen sailak.

Zazpi seme-alabatik azkena da Catherine, eta amak hezi zuen, irakaslea baitu lanbidez; aita desagertu ondoren, begiralea ere hezitzaile izan zuen.

Argazkilaritzaren, literaturaren, musikaren... zale porrokatua da, eta FAAP - Afrikako Arte Fotografikoko Federazioko kidea. Etengabe harritzen gaitu Catherineren komunikatzaile-senak.

Ousmane Goita

« Musoya » (Feminitatea)

Afrikako emakumeen estetikari buruzko erretratu-serie bat dugu “Musoya”, eta kontinente horretako emakumeen aberastasuna aldarrikatzen du. Hona Maliko artista horren galderak: Ba al dute emakumeek nahikoa botere erabaki garrantzikoak hartzeko? Bidegabe-keria baten biktima al dira? Zenbat emakumek jasaten ditu tratu txarrak? Gizonen mende egoteko obligazioa al dute? Beste norbaitek erabakitzen al du emakume gehien geroa? Zein dira gure “amak”, “arrebak”, “amazteak”?

Lur jota gelditzen dira haietako asko, batez ere neskak, zoritxarreko zenbait gertara direla medio —besteak beste, ezkontza behartua, nahi ez den haurdunaldia, bortxaketa...—, eta bizitzeko poza galduta, beren buruaz beste egiten dute. Hala eta guztiz ere, etengabe egiten dute borroka gure gizartea aldatzeko eta berdintasun-maila handiagoa izateko. Proiektu horren bidez, Afrikako gizartean emakumeenganako errespetu handiagoa aldarrikatzen du argazkilariak.



“Emakume izatea “edo “feminitatea” esan nahi du “musoyak”. Banbara edo bamanakana hizkuntzako hitza dugu, Maliko hizkuntza nazionaletako batekoa, alegia.



BIOGRAFIA

Malikoa da Ousmane Goïta argazkilaria eta zinemagilea, Balla Fasséké Kouyaté Multimediako Arte eta Lanbide Kontserbatorioan diplomaturia. Zinemarako eta argazkigintzarako argizatze-teknikak —estudiorakoak eta ingurune naturalerakoak— ikasi zituen. Multimedien lizentziatua da, eta argazkilaritza-sektoreko *Unimode* markaren sustatzailea.

Argazkilaritzaren zale amorratua da, eta irudiaren bidez gauzak adierazteko, komunikatzeko, jakinarazteko eta jendea sensibilizatzeko baliatzen ditu argazkiak. Zenbait film labur eta luzetan egin du lan, eszena-argazkilaria gisa.

Argazkigintzako zenbait lantegitan ere jarduna da, Espainiaren Maliko lankidetzaz-zerbitzuaren eta Frantziako Bois Sacrés (baso sakratuak) elkartearen laguntzarekin. FAAP - Afrikako Arte Fotografikoko Federazioko kidea da, eta Bamakoko Vortexgroups-en egiten du lan, argazkilaria eta trebatzailea.

Lemrite (Ismaila Diouf)

« Et si on inversait les rôles ? » (Eta rolak irauliko bagenitu?)

Emakume ezkontuentzat errespetu eta begirune handiagoa aldarrikatzen du obra honek, izenburuko galderaren bitartez. Norberaren balioen onespenu ote da ezkontideen arteko errespetua, ala gizaki bakoitzaren eskubidea? Gizonaren azpitik dagoen izaki gisa ikusten al dugu emakumea? Emakumeen lana gutxietsi egiten al dute gure gizarteek? Galdera ugari dakarzkigu artista honek etxeko lanak direla eta emakumeek duten rolaz eta gure gizartean, gure gizarteetan emakumeek duten estatusaz.

Zenbait erretraturen bidez, emakumeak senarrarekiko duen estatusa

nabarmentzen du argazkilaria, eta estetika maskulino bat berresten ahalgintzen da.

Erraza al da gizonak etxeko zenbait lan egiten ikustea? Egiazki da emakumea etxeko funtzionamendu egokiari dagozkion lan guztien arduraduna?

“Eta rolak irauliko bagenitu?” seriean, gure gizarteak emakumeei soilik esleitzen dizkien lanetako batzuk beren gain hartzen saiatzen dira gizonak. Bestalde, emakumeek etxean egiten dituzten lanen garrantzia erakusten digu serieak, eta haurren zaintza eta heziketari egiten dioten ekarpena.





BIOGRAFIA

Ismaïla DIOUF du egiazko izena (goitizena da Lemrite); nau-tika ikasi zuen, eta argazkilaria autodidakta da. Dokumentazioz hornitzea izan zuen lehen urratsa lanbide horretan, eta bereziki saiatu zen argazkigintzarako begia egokiro hezten. Ismailak ez du berariaz jorratzen inongo argazkigintza “estilorik”: denetik egiten du, inolako aurreiritzitik gabe.

Argazkilaria horren ustez, ez dago grina bezalako eskolarik. Ez omen ditu inoiz zenbatzen argazkigintzan ematen dituen orduak, eta argazkiak egitea ez omen da, berez, ezeren helburu. Grinaz dihardu argazkigintzan, zeina sormenezko bilaketatzat baitauka, bere pentsaera, sentikortasuna eta barne-begirada adierazteko bidetzat. Gainerakoan, ezin izan dugu jakin zerk bultzatu zuen alor horretan jardutera. Ismailak dioenez, txikitatik gustatu omen zaio argazkigintza, batez ere diseinuaren alorra.

Bere familia-giroan argazki-kamera erabiltzeko aukera sortzen zitzaion bakoitzean, ahalik eta gehiena aprobetxatzen omen zuen. Lehenbizi, argazki-makina analogikoa erabili zuen eta, ondoren, digitala. 2015ean ekin zion argazkigintzari profesional gisa, alor horretako zenbait elkarte eta erakundetako kide egin ondoren; besteak beste, *SUNU NATAA*Lekoa. Ondoren, Afrikako Arte Fotografikoko Federazioko (FAAP) kide egin zen. Garrantzi handia izan du elkarte horrek Ismailaren bilakaeran, argazkigintzako profesional ugariarekin harremanetan jartzeko aukera eman baitio.

NAN'ART (Nana Marie Hélène Faye)

« La petite chaussure rouge » (Zapatatxo gorria)

Hautura-moduko bat da “Zapatatxo gorria” lana, emakumearen indarguneak eta ahalak —batez ere alor profesionalekoak— erakusten dituen iraultza bat, sarritan emakumeari mugak jartzen dizkion gizarte batean.

Bera dugu emakume horietako bat, helburutzat daukana lortzen saiatzen den horietakoa.

Dena dela, bere familia zaintzearen etxeko lanak ere egiten dituen emakumea dugu;

hilero menstruazioak sabelpean oinaze jasanezinak eragiten dizkion emakumea;

familiarentzat egunero otordu goxoak gogoz eta maitekiro prestatzen dituena;


sabelean bederatz hilabetez eraman zaituena.

Emakume horren esneak eman dizu indarra.

Zugatik eta niregatik borrokatzen da emakume hori, bizitzugatik, munduugatik; bere enpleguagatik borrokatzen da, eta zor zaion errespetuagatik.

Bere bertute eta akats ugariekin maite zaituen emakumea duzu.

Ama duzu, ahizpa, emaztea, adiskidea... Bera... emakume bat da!





BIOGRAFIA

Nana Marie Hélène Faye du egiazko izena NAN'ARTEk, eta artezale amorratua da txiki-txikitatik. Batxilergoa amaitzean, Saint Louiseko Gaston Berger Unibertsitate-ra joan zen, komunikazioa ikastera. Ikasketak eta zaletasuna uztartuta, argazkilaritzaren munduan murgildu zen 2018an. Argazki artistikoak maite ditu Nanak, baina beste-lakoak ere egiten ditu; esate baterako, paisaien argazkiak eta inguruko jendearen erretratuak. Emakumeen kausaren oso aldekoa da, eta “Afrikako emakumeen parlamentua” proiekturako egin zuen lehenbiziko lana. Eguneroko bizimoduan emakumeek dituzten indarguneak eta ahalak erakustea du xede bere obrak.

Zinema, literatura eta diseinua ere biziki maite ditu Nanak, eta zaletasun horiek guztiek eraman dute artearen mundura. Kronikak idazten ditu, eta Facebooken argitaratzen, “Les coups du destin” (Patuaren kolpeak) izenburu dutela. Gizartean, gure gizartean zenbait emakumeek pairatzen dituzten bizi-baldintza zailen berri ematen du kronika horietan. Emakumeen aurkako indarkeria gaitzestea dute xede nagusi Nanak Facebooken argitaratzen dituen istorioek. Izan ere, oso sentikorra da arazo horrekiko.

Dago Nadi Jessica

« Socle Bafoué » (Oinarri zanpatua)

Emakumeek gizonek baino gehiago lantzen dute lurra Boli Kostan: nekazaritzako langileen % 67 emakumezkoak dira, eta herrialde horretako elikagaien % 60-80 inguru ekoizten dute. Alabaina, apenas ezer jasotzen duten emakumeek nekazaritzaren emaitzetatik, Boli Kostako ekonomiaren zutabe nagusietakoa den horretatik.

Herrialde osoan ibili da gure artista, batez ere landa-eremuetan: Toubatik Korhogora, Bouakétik barrena; Daloatik Gagnoara, Yamoussoukrotik igarota; eta beste zenbait hiri esanguratsutan, hala nola Grand-Lahoun eta Soubrén. Emakumeek nekazaritzaren sektorean duten garrantziaren lekuko

izan da Dago; bere iritziz, hau da Boli Kostako andreak jasaten duten bidegabekeriarik handiena: ez dute lurra-aren jabe izateko eskubiderik. Izan ere, hala agintzen du Afrikako mendebaldeko herrialde horretako tradizioak; hots, emakumeek ezin dutela lurrik jarauntsi. Oso zaila zaie Boli Kostako andre gehienei beren soro propioak edukitzea, herrialde hartako tradizioak eta legeak direla medio.

“Oinarri zanpatua” seriearen bidez, sektore horretako bidegabekeriak erakusten eta salatzen ditu gure artistak, eta hunkigarriki omentzen Boli Kostako emakume guztiak, batez ere landa-eremukoak.





BIOGRAFIA


Boli Kostakoa da Dago Nadi Jessica, argazkilari gazte eta dinamikoa, bidaiak eta kultura atsegin dituena. Komunikazio bisualeko diplomaren jabea da, eta webguneak programatzen espezialista.

Goi-mailako ikasketen ondoren, 2017an, argazkilaritzari ekin zion, eta berehala bihurtu zen zale amorratua. 2018an FAAP, Afrikako Arte Fotografikoko Federazioko kide egin zen, eta Abidjaneko Arte Naifen Seigarren Bienalean parte hartu zuen, “Le OFF de la BINA” erakusketa kolektiboan.

Desafioak maite ditu Dago Nadik, eta abenturerekiko zaletasuna dela medio oso argazkilari moldakorra da, presiopean jarduteko gaitasuna duena. Grina, erabakimena eta arrakasta, horra haren nortasuna ondoen adierazten duten hitzak.

Boli Kostako emakumeen eta gizonen bizimodua erakusten digu argazkien bidez, bai eta Afrikan ezagutuz doan lekuak ere.

Boli Kostan bizi da, eta han egiten du lan.



***Mystic Bram's* (Ibrahima Dia)**

« Ñun itam » (Emakumeok ere bai!)

Gure gizarteotan, ezagutza erlijiosoak eskuratzeko betebeharra eta eskubidea al ditu emakumeak?

Emakumeaz eta erlijioaz mintzo zaigu “Ñun itam”, hau da, gure gizartearen oinarriez, gizonei soilik baimentzen zaien eran. Irakasleen munduan emakumeen eskubideei buruzko gure mezuak aldarrikatzea du xede serieak.

Bere zaletasuna, argazkilaritza, lagun-garri zaio egileari emakumeek gure erlijioetan duten lekua goresteko eta, bide batez, generoarekin lotura duten zenbait gairi buruz duen ikuspegia azaltzeko. Emakumea bere buruaren jabe aldarrikatzen du egileak bere ikuspegi horren bidez.



BIOGRAFIA

Ibrahima Dia du egiazko izena Mystic Bram's-ek; argazkilaritzaren zale amorratua da, independentea eta autodidakta. Afrikako Arte Garaikidearen 13. Bienalean (Dakar) parte hartu du, eta aldatu egin du argazkilaritzaz zuen ikuspegia FAAP - Afrikako Arte Fotografikoko Federazioko kide egin ondoren.

Senegalen jaioa da, 1989an, eta Dakarreko aldirietan dagoen Thiaroye Azur aurtoan eman zuen haurtzaroa.

BFEMa amaitu ondoren, ikasten jarraitu zuen, batxilergoa amaitu arte. 2010ean, elektromekanikari buruzko urtebeteko ikastaro bat egin zuen. Bidaia-eraketak, bere herrialdeko eskualde ugari ezagutu zituen 2011tik 2014ra bitartean. Aitak erakutsi zion kamera analogikoa maneiatzen, eta 2014an hasi zen hura erabiltzen.

Kamera hura erabiltzeko oinarritzko teknika menderatu zuenean, herrialde osoa zeharkatzeari ekin zion, argazkiak ateratzeko ibilaldiak eta txangoak eginez, Sénégal Photographie eta Sunu Naatal elkarteetako lankideekin batera. Bere herrialdeko bizitza soziokulturala ezagutzeko aukera ere eman dio argazkilaritzak, eta besteak beste kultura-alorreko gizon-emakume ugariarekin harremanetan jartzekoa.

« L'œuvre aux noirs » (Beltzen lana)

Izenburu deigarri eta probokatzaileko argazki-seriea dugu "Beltzen lana", Gineako emakumeen indarra eta gaitasuna erakusten eta plazaratzen diguna. Afrikako gizartean emakumeen irudiarekiko errespetua sendotzea eta haien aberastasuna aldarrikatzea da egilearen asmoa.

Erreginak balira bezala tratatu behar al dira emakumeak? Beren eskubideen alde borrokatzen den ama, arreba, se-
duktorea, emaztea... al da emakumea? Entzun egin behar al dugu? Errespetua zor al zaio?


Hainbat eraso, bortxaketa, nahi gabeko haurdunaldi eta abar jasaten dituzte emakumeek, eta askok bizitzeko

gogoia ere galdu egiten dute. Hala eta guztiz ere, etengabe egiten dute borroka gure gizartea aldatzeko eta berdintasun-maila handiagoa izateko.

Zenbait galdera luzatzen dizkigu artistak bere irudien bitartez; emakumeez eta haien estetikaz, ahalmenaz, grinaz, sendotasunaz eta kemenaz arduratzen da, eta mezu bat bidaltzen digu emakumeen eskubideez eta mundu osoan pairatzen dituzten gehiegikeriez.

Gure gizarteetako emakumeen irudi zehatza dakarkigu artistaren ikuspegi artistiko eta liriko horrek; goret si egiten ditu emakumeak, eta omenaldi hunkigarria eskaintzen, etengabe egiten duten lana dela eta.





BIOGRAFIA

Papa Youssoupha Seck du benetako izena Pyspicek. 1978an jaio zen, Senegalgo Dakarren, eta han ekin zion —2009an— irrati-teknikari lanari, ikasketak amaitu ondoren.

Argazkilaritzaren zale porrokatua, independentea eta autodidakta, 2010ean hasi zen argazkigintza ikasten, batez ere profesionalentzako zein amateurrentzako kalitate handiko argazkien tutorialen bidez. Beste argazkilari batzuekin elkarlanean jardun izan da bere lanbidearen gaineko zenbait jardunalditan.

Argazkilaritzaren oinarrizko teknikak eta irudien tratamendu-programak ikasi ondoren, Gineako Conakryra joan zen, eta han bizi da eta egiten du lan azkeneko lau urteotan. Argazkilaritza du lanbide berria, eta buru-belarri ekiten dio lanari.

Talentu artistiko handiaren jabe denez, zenbait aktore eta musikarirekin egin du lan, bai eta bestelako proiektu batzuetan ere —esate baterako, “La voix des jeunes” (Gazteen ahotsa)—, bai Ginean bai beste herrialde batzuetan.

Sari ugari jasoa da Pyspic zenbait argazki-lehiaketatan; besteak beste, Castel Beer Guinéeek 2019an antolatu zuenean eta 2017ko Paris Match Afriquen.

FAAP, Arte Fotografikoko Afrikako federazioko kidea da, eta argazkilaritza artistikoaren zale sutsua; dena dela, bestelako argazkiak ere egiten ditu: hiri eta paisaienak, adibidez, eta gizon, emakume eta haurren erretratuak. Afrikako emakumeen kausarekiko duen sentikortasuna argiro erakusten du bere lanak, zeinak etengabe azpimarratzen baititu haien bizitasuna eta ahalmena. Maiz egiten du lan zenbait GKE, komunikazio-agentzia eta bestelako erakunderekin, guztiak ere kamera maneiatzeko bere trebetasuna estimatzen dutenak.

Adébayo Sègla Carlos G. C. Sodokpa

« 100 rythmes » (100 erritmo)

Bizitza kalean, kalea bizitzan. Kalean, genero-mugez beterik dago industria informalaren mundua.

Afrikako hiriei buruzko bere argazki-serie dokumentalen bidez, emakumeek ekonomia informalaren sektoreari egiten dioten ekarpena azpimarratzen du gure artista eta argazkilari benindarrak, eta "100 erritmo"-ko bititza bat erakusten digu: hainbat eratako jendea, pentsaerak, aurpegiak, pertsonak, emozioak, ohiz kanpoko paisaiak... eta bizitzak. Hiri-inurritegi horretan, egin-kizun bera dute milaka emakumek: bizimodua aurrera ateratzea, bizirik irautea.

Hainbat eta hainbat dira Beningo Cotonun, Dakarren, Senegalen eta Afrikako beste zenbait bazterretan beren produktuak ekoizten eta saltzen dituzten amak, arrebak eta ahizpak, emakumeak.





BIOGRAFIA

Abomey hirian, Beningo hegoaldean, jaio zen Carlos, zeinaren benetako izena Adébayo Sègla Carlos G. C. SODOKPA baita. 2015az geroztik, argazkilaria eta zinemagile dihardu. Kazetaritzako eta argazki-erreportajeak egiteko baimen profesionala du, ENSTIC-UAC institutuak emana, eta FAAP - Arte Fotografikoko Afrikako Federazioko kidea da.

Zuri-beltzeko argazkilaritza maite du, eta zaletasun horrek areagotu egiten du bere lanarekiko jendearen arreta. Gorputz-adierazpena eta bizitzaren amaigabetasuna azaltzen saiatzen da bere lanen bidez, eta hirien zein paisaien erretratuz betetako bere unibertsoa gonbidatzen gaitu. Biziki maite du Carlosek denekin partekatzea bizitzari eta jendearen bizimoduari buruz duen ikuspegi lirikoak.

Asko gustatzen zaio bidaiatzea, eta zenbait argazki-serie egin ditu gai hauen inguruan: ura eskuratzeko moduak muinoen eskualdean, haurren lana, Afrikako zenbait turismo-gune, eta bere herrialdeko hiriburu ekonomikoaren gizalegerik eza. Green Flash Bénin 2018 lehiaketa irabazi zuen, profesionalen kategorian, eta Ecolo Happy Day proiektuko argazkilaria ofiziala da.

Beningo Aymar Esse zinema-zuzendariaren lau filmetan jardun zen argazki-zuzendari, bai eta Fidel Hounhouede kazetari eta zinemagilearen fikziozko film labur batean (*Innocente Coupable*) eta dokumental batean ere (*Igui Guelé-de*). Nabarmena da, artista eta zinemagile horren obra guztietan, irudia lantzeko duen maisutasuna.

Ly Lagazelle (Phillis Lissa)

« Identité » (Nortasuna)

Itxaropenez betetako mezua zabaltzen duen begirada poetiko goitarra dugu obra hau. Bizimodua, doteak, lanbideak... hain mugatuak dituzten Afrikako emakumeen aukerak areagotzen dituen begirada bat. Emakumeak bere gisa omentzea erabaki du Ly Lagazellek, Afrikan duen ingurune profesionaleko zenbait tabu eraistea eta zenbait klitxe suntsitzea bere begiradaren bitartez.

Gogo biziz kontaktzen digu halako berdintasun-maila bat lortu duten emakumeen historia, maskulintzat jotzen diren zenbait rol berengantatu dituzten eta horiez arduratzen diren zenbait emakumerenak. Bestalde, emakume horien eskubideak eta aukerak azaltzen saiatzen da Ly Lagazelle, Afrikako gizarteko emakumeen bestelako ikuspegi bat aurkezten.

Bere lanaren bidez, benetako eskubide-berdintasunaren alde borrokatu diren emakume ausart horiek guztiak ere omendu nahi izan ditu artistak, generoa dela eta beren gizarteetan hainbat egoera zail eta arriskutsu jasan behar izan dituzten emakumeak, alegia.





BIOGRAFIA

Autodidakta da Ly, eta 2007an agertu zitzaion argazkigintzarekiko zaletasuna, Donwahi Fundazioak antolatutako Abidjaneko Arte Bisualen Jaialdian.

Zenbait lankideren lanak sakon aztertu ondoren —Sébastien Salgado, Josef Koudelka, Raymond Depardon eta Seydou Keitarenak, besteak beste—, grina berri baten jabe zela ohartu zen. Argazkilari ospetsu haien unibertsoak erabat erakarri zuen *Ly Lagazelle*, zeina argazkilaritza digitalaz baliatzen baita bere lanetarako.

Dokumentalak, erretratuak eta paisaiak dira Lyren argazkilaritzaren ardatz nagusiak, munduaren ikuskera eta sentikortasun artistikoa bilatzeko bere ekinaren giltzarriak. Nahita dira adierazkorrak haren argazkiak. Saharaz hegoaldeko herrialdeetan ibilia da Ly —Mauritaniatik Ghanara, Togo, Benin, Senegal, Burkina Faso eta Mali zeharkatuz—, bai eta Europako zenbait herrialdeetan eta Myanmarren ere. Argazkigintza du grina, eta horren bidez erakusten dizkigu gure gizartearen zenbait alderdi.

Bidaia horietan egin dituen argazkiak astiro hausnartu ditu, bizi izan dituen esperientzien berri emateko eta bere espiritualtasuna adierazteko.

Objektiboaren bidez, betekotasunaren irudi gisa jaso nahi izan du Lyk uen bakoitzaren berezitasuna. Itzalek dantza egiten dute eta elkarrekin nahasten dira, definitzen dituen argiri isilgordeka tarte bat eginez. 2017an, “LesSilencieuses” proiektua aurkeztu zuen Marrakechen, André Hellerren ANIMA lorategi xarmagarrian; ondoren, 2018an, sorterrira, Boli Kostara, itzuli zen *Ly Lagazelle*, Abidjaneko Cité des Arts # 3-ko “INSTINCTIV” erakusketan bere lanak aurkeztetara. Urte hartan bertan, 2018an, bere herrialdearen eta Marokoren ordezkari izan zen zenbait artista afrikarren “afrOURban” erakusketa kolektiboan. Lehenbizi New Yorken eta ondoren Montrealen jarri zen erakusketa. Urte hartantxe egin zen Ly FAAP-Afrikako Arte Fotografikoko Federazioko kide, eta Senegalgo Arte Afrikarreko 13. Bienalean esku hartu zuen (“Le carrefour OFF” obra eraman zuen Dakarreko Daniel Brothier Zentro Kulturalera). 2019ko martxoaren 8an, berriz, Marrakecheko Boucharouite Museoa aurkeztu zuen bere lana, Marokoko brodatzaileen eta ehuleen omenezko “L’AmeuFil” erakusketan.

Koukambakana Matthieu Urielle

« Sexisme » (Sexismoa)

Gogoan du Uriellek —eta hala izango du luzaroan— bere bizitza osoan jasan duen diskriminazioa, emakume gaztea den arren. “Sexismo” seriean argiro erakusten dizkigu bere bizitza eta historia, bere esperientziak eta emakumeenak. Narrazio artistiko bat dakarkigu

Uriellek bere obraren bidez, berak bizi izandako egoera ankerrak. Zenbait zitaleria salatzeke eta diskurtso jakin batzuk suntsitzeko sakatzen du argazki-kameraren botoia. Gona bat jantzi

zuen lehenbiziko aldian, izugarri itsusi zegoela iruditu zitzaion. Aitzitik, bere anaia etengabe ibiltzen da hara eta hona, bularraldea biluzik, halako egoerarik jasan gabe. Emakumeak hauskorak, delikatuak, ahulak... direla esaten badugu, maila apalago batean uzten al ditugu?

Gogoan du Uriellek halako batean familiako bilera batean parte hartu nahi izan zuela eta hau esan ziotela: isil-isilik egoteko.





BIOGRAFIA

Koukambakana Matthieu Urielle du izena, eta enpresen administrazio eta kudeaketako goi-mailako teknikari diplomaturia da (DTS) 2015az geroztik.

Multimedien eraginez hasi zen argazkigintzaz interesatzen, eta 2018an ekin zion argazkiak egiteari. 2017an, infografiako diploma eskuratu zuen 24 urteko gazte argazkizale amorratu horrek.

Kongo Brazzavillekoa da izatez, eta Senegalera joan zen bizitzera duela bost urte. 2018an Dakarrareko Arte Ederren Eskolan eman zuen izena, Arte Plastikoen adarrean. Afrikako Arte Fotografikoaren Federazioko (FAAP) kidea da.

Oumou Traoré

« Femmes migrantes » (Emakume migratzaileak)


Gai horretaz jarduteak Maliko emakume horri eta Senegalekin duen loturari buruz hitz egitera garamatza. Senegalgo hiriburuan eman zuen Oumouk ia haurtzaro osoa, gurasoekin batera, han bizi baitziren ordurako. “Afrikako emakumeen Parlamentua” lana zela eta, Senegal gogoratu eta argazki-kameraz baliatu zen herrialde hartako emakume migratzaileen gaineko mezu bat zabaltzeko eta haiekiko konpromisoa gauzatzeko.

Bere haurtzaroko emakume gogoan-garriei buruzko obren bidez, haien

begirada eta sentikortasuna aldarrikatzen du, eta haien bizimoduak berekin dakartzan sufrimenduak azpimarratzen.

Emakumeen immigrazioaz galdera ugari egiten ditu, gure gizarteek aintzat har ditzaten emakume migratzaileen eskubideak. Etengabe egiten du gogoeta gai horretaz eta, ondoren, hezurramitu egiten du bere lana, bere ezagutza, arazoa sakonago jorratu eta emakumeen eskubideekin lotzeko.





BIOGRAFIA

Oumuou Traoré (hori du benetako izena) 1992an jaio zen, Maliko Sirakolan. Bamakon bizi da, eta han egiten du lan.

Argazkilari independentea da, eta argazkilaritza dokumentala eta artistikoa interesatzen zaizkio gehienbat. 2009an egin zituen argazkilaritza profesionaleko lehen ikastaroak, Maliko emakume argazkilarien elkarte batek antolatutak.

2011n, master bat egin zuen, Boli Kostako Ananias Léki Dago argazkilaria zuzendari zuela, Bamakoko Bederatzigarren Topaketetan. Urte hartan bertan, Bamakoko Argazkilaritzako Trebakuntza Zentroko (CFP) kide egin zen Oumou, argazkigintzari buruzko ezagutza areagotzeko. 2016an amaitu zituen ikasketak, arrakastaz amaitu ere, eta harrezkeroztik zenbait erakusketatan hartu du parte Suitzian, Alemanian eta bere herrialdean. Laguntzaile ere jardun da beste zenbait erakusketatan; besteak beste, “Mali moto”-n (Medina Galeria, Bamako, 2014), “Longing for the Future”-n (Bâle, 2016; Beirut, 2017), eta “Les 15 regards sur Bamako”-n (2017, Maliko Museo Nazionala). Emakumeen erretreatuak argitaratzen ere jarduna da; zehazki, Mars des femmes 1991 liburuan, 2016an argitaratua. Maliko iraultza bati buruzkoa da liburua.

Fatoumata Diallo

« Errantes » (Alderraiak)

Saheleko emakumeen zenbait bizipen mingotsen berri dakarkigu “Alderraiak” argazki-serieak. Izan ere, hainbat gatazka armaturen biktima dira inguru horretako emakumeak.

Indarkeria-mota ugari jasaten dituzte beren sorterrian errefuxiatu bihurtu diren emakumeok: erasoak, sexu-mendekotasuna, ezkontza behartuak, bortxaketak eta nahi gabeko haurdunaldiak, besteak beste.

Gainera, errefuxiatu-eremuetara eramaten dituzte, beren herrian edo bes-

te batzuetan. Eta han jarraitzen dute, segurtasunaren zain eta zorionsu izateko itzaropenari eutsiz.

Gogoeta egitera behartzen gaituzte, nahitaez, serie horretako irudiek. Gure gizartean emakumeek duten rola zehatz aurkezten digu artistak, eta jasaten dituzten gehiegikeriez jendea ohartarazten saiatzen da. Gizonezkoen nagusitasuna ukaezina da, izan ere, gure sistema ekonomiko, politiko eta kulturean; eta, sarritan, lehen baino are nabarmenago.





BIOGRAFIA

1995ean jaio zen Fatoumata Diallo, Yanfolila hirian, Maliko Sikasso eskualdean.

Arte eta Lanbide Multimediaen Balla Fasséké Kontserbatorioan eta Bamakoko Kudeaketako Unibertsitate Institutuan ikasi zuen, eta diplomaduna da. Argazkilaritzarekiko zaletasunak, berriz, bere emozioak eta ideiak adierazteko aukera ematen dio. Lau urtez ikasi zuen argazkilaritza Faoumatak, Bamakon, Michel Brent zinemagile eta idazle belgikarra irakasle zuela; halaber, argazkilaritzari eta irudien tramenduari buruzko zenbait trebakuntza-lantegitan jardun zen.

Talentu handiko emakumea da, eta zenbait erreportaje egin ditu Saheleko errefluxiatuei buruz Mauritaniako M'berran, Burkina Fasoko Goudeboun eta Nigerreko Ayoroun.

Zinemagilea ere bada Fatoumata, eta zenbait film labur egin ditu Maliko krisi politikoarekin eta segurtasun-gabeziarekin lotura duten hainbat gairen gainean.

Autodidakta da, eta argazkilaritzaren zale amorratua izaki, Maliko Bamako hirian Afrikako Argazkilaritza Bienalean antolatutako argazki-erakusketa kolektibo ugariatan hartu du parte. Bestalde, FAAP, Arte Fotografikoko Afrikako Federazioa kidea da.

Nazioarteko zenbait komunikabideren ohiko kolaboratzailea da (El salto diario...), eta gobernuz kanpoko zenbait erakunderen laguntzailea (Extremadurako Bakearen aldeko Mugimenduarena, esate baterako), Saheleko desplazatu eta errefluxiatuei dagozkien gaietan.


Malin bizi eta da, eta han egiten du lan.

Emmanuel Alexis AïKO

« Amazones » (Amazonak)

Beningo historia osoan, Abomeyen erregealdian onartu zituzten lehen-bizikoz emakumeak armadan. Gerrarako prestatzen zituzten amazonak, eta eginkizun hauek zituzten: erresuma eta erregea defendatzea, eta lurralde berriak konkistatzen laguntzea. Emakume ahaltsuen estatus berezia lortzeko bidea hori zuten. Baina erregearen agindutara egon behar izaten zuten beti, beren janzki berezi haiek soinean zituztela.

Aipagai dugun argazki-serieari bezala, "amazonak" deitzen zieten emakume afrikar haiei, eta argazkilariak haien janzki tipikoei erreparatu die bereziki. Beningo emakumeen historia interpretatzea eta haiek omentzea da artista-ren xedea.





BIOGRAFIA

Beningo Cotonun jaio zen Emmanuel Alexis AïKO —hori du izen osoa artistak—, 1987an. Littoral Côte d'Ôpale unibertsitatean (ULCO, Frantzia) eta Dunkerkeko Nazioarteko Merkataritzako Goi Institutuan (ISCID, Frantzia) ikasi zuen, Beningo Kudeaketa Informatiko eta Zientifikoko Goi Eskola (ESGIS) babesle zuela. 2011n jaso zuen zientzia ekonomikoko eta nazioarteko kudeaketa eta administrazio lizentzia. 2014an, berriz, argazkilaritza ikasten hasi zen, informazioa zabaltzeko, gizartea sentsibilizatzeko eta munduarekin komunikatzeko.

Ikus-entzunezko jardueren zale porrokatua da, eta Arte Fotografikoko Afrikako Federazioko kidea (FAAP); halaber, aktoreak trebatzea eta heztea xede duen Free-Screen Entertainment elkarte zinematografikoko sortzailea eta bazkidea da 2008az geroztik.

Kpassè hirian jaio zen, Ouidahen, eta Ghanako Acran bizi izan zen 2014tik 2017ra. Ghanako zenbait erakunderekin jarduten du lanean: besteak beste, Star's Club House, New World Studio eta Adage Multimédiarekin.

Egun, Cotonun bizi da eta egiten du lan.



« AFRIKAKO EMAKUMEEN PARLAMENTUA »

BERDINTASUNA, EKITATEA, EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

AECID - Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren eta Espainiaren Senegalgo enbaxadaren laguntza finantzarioari esker ahal izan da jarduera hori. FAAP, Afrikako Arte Fotografikoko Federazioaren arte bisualaren diskurtsoa sustatzen saiatu dira aipatutako bi erakundeak. Aukera ederra izan da jarduera hori pentsaerak sendotzeko, ezagutza berriak eskuratzeko eta artezaleen lan-ildoak partekatzeko.

Azpiraratzekoak dira, bestalde, Espainiako Lankidetzeta Bulego Teknikoko Kultura eta Garapenerako arduradun María Inés Diego Zapataren laguntza eta kontrola.

Berezkoa du FAAPek partekatzea, bere DNAn darama, eta artista fotografikoak erakunde berean biltzea du xede, betiereko ikaskuntza- eta truke-jarduera batean. Jarduerak, berriz, garapen artistikoaren zutabe izatea du xede, bidean aurkitzen dituen oztopo guztiak gorabehera.

KCD GGKE elkartearen lankide modura aritu da eta honi esker euskarazko zein gaztelerazko paperezko edizio hau garatu ahal izan da. Hau, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantziarioarekin lortu da.

cataloguefaap@gmail.com

« AFRIKAKO EMAKUMEEN PARLAMENTUA »

BERDINTASUNA, EKITATEA, EMAKUMEEN ESKUBIDEAK



© Ly Lagazelle

